



184 KORRIKALARIK IGOKO DUTE TXINDOKI

Larraitzeko langatik irtengo dira Txindoki Bertikala mendi lasterketako partaideak; izen handiak egongo dira proban >6

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Ostirala
2010-06-18**

VIII. URTEA 2.030. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Nairobiarra elkarteak proiektu berritzaile bat dauka esku artean

TOLOSA Suhiltzaileen ondoko aparkalekuan dagoen autobusean bidaia eskola bat zabaldu nahi dute

'NAIROLAU' Elkartearen laugarren autobusa geldirik egongo da; hala eta guztiz ere bidaia ugari egingo ditu z



Josu Iztueta Nairobiarra bidaia eskolaren aurrean. I. TERRADILLOS



Larrañaga, Iriarte eta Lazkano Usabalgo Teknikazio Zentroan. A. IMAZ

Kirolarien osasuna zaindu eta lantzeko Zentroa inauguratu dute Usabalen

TOLOSA Kiroldegian elkartu diren pertsonaiek Konpromiso Etikoa sinatzeko aukera eduki dutes

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO hitza**
bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldekohitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31180 Leizta

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>

Nairobitarra elkarteak proiektu berria du esku artean: bidaia eskola; suhiltzaileen ondoko aparkalekuan dagoen autobusa izango da tailer, hitzaldi, proiektio eta mintegien lekuko.

Egonean bidaiari

INIGO TERRADILLOS

Gure aisialdiarekin edota oporrekin lotzen dugun zerbait da bidaiatzea, eta leku batetik bestera joatea eskatu ohi du. Badira, ordea, halabeharrez egin behar izaten diren bidaiak, eta hauek, ziur aski, era bolutarioan egiten direnak gairiditzen dituzte. Badira, halaber, begiak ixte hutsarekin egin ahal direnak. Urrutira ala bertatik bertara, nahi dugulako ala behartuta, irudimena baliatuz... esanahi eta erabilera anitz aurki diezazkiokegu bidaiari.

Nairobitarrak ere badu bidaiarentzat berezko esanahia eta estiloa. Azken 25 urteetan milaka kilometro eginez ehunka lurralde gurutzatu dituzte, eta bidaiariak batetik bestera mugitzearen ikuspegi berezi bat ezagutu ahal izan dute. Autobusa izan dute orain arte bidelagun, eta horrela izango da aurrerantzean ere, *Nairolau* izeneko euren laugarren ibilgailuarekin. Badu, ordea, aurreko hiruretatik berezituko duen ezaguarri bat, ez duela kilometrorik egingo, alegia. Ez behintzat erregearen laguntzaz.

Proiektuaren hastapenak

2009ko udaberrian hasi zirenean Nairobitarra elkarteoko proiektu berriarekin. Murtzian bi pisuko autobusa erosi zuten, eta hura egokitzearekin zioten. «Euskal Herrian zehar ibilbide tematikoak antolatzeko asmoz hasi ginen, geologia, historia, antropologia, biologia eta beste hainbat arlotako adituak gonbidatuta, bidaiariak gure ingurua paisaiaz haratago ezagutu zezaten», azaltzen du Josu Iztueta elkarteoko kidea.

Idea garatzen joan ahala, hainbat aldaketa egin behar izan dituzte: «Autobusak ibiltaria izan behar zuten, baina, baimenekin edota mekanikarekin hainbat arazo agertzen joan zitzaizkigun, eta azkenean egokiena autobusa geldirik uztea zela erabaki genuen». Horrela sortu zuten bidaia eskola.

Eskolarako helburuak

Tolosako Udalak suhiltzaileen ondano dagoen aparkalekuan uzteko baimena eman die, eta bertan garatuko dute proiektua. Laster forma hartzen hasiko diren ideia ugari eta askotarikoak dituzte buruan. Esaterako, bidaiak prestatzeko tai-



Josu Iztueta Nairobitarra bidaia eskolaren berri ematen, atzo. ESTI EZEIZA

lerrak egin nahi dituzte: «Hainbat kontinentetan eta hainbat modutan bidaiatu duten adituekin ikastaroak egitea da gure asmoa», dio Iztuetak.

Beste lurralde batera bidaiatzean bertako egoeraren berri izatea ezinbestekoa izaten da, eta horretarako ere ikastaroak antolatuko dituzte: «Munduan zehar lanean aritzen diren kazetariak herrialde interesgarrienei buruz hitz egingo digute autobusean, hitzaldi eta argazki proiektioekin». Gisa honetako tailerren proba eginga dute, duela hilabete batzuk Txinari buruzko esperientzia kontatzen egon baitzen bidaia eskolan Zigor Aldama kazetaria.

Proiektua zabala eta irekia denaren adierazle, bestelako hainbat gairen inguruan ere egingo dituzte bidaiak, hala nola, natura, zientzia, argazkilaritza, bertsogintza, idazketa... Bestalde, bereziki gaztetxoen pentsatuz ere antolatu nahi dituzte ekintza batzuk: «Mun-



Lo egiteko aukera ere bada *Nairolau* autobusean. ESTI EZEIZA

duan zehar egin ditugun bidaietan ikusi dugu beste hainbat lurraldetan gauza gutxiagorekin gehiago egiteko gai direla gazteak, eta horixe ikusarazi nahi dugu; bizitzeko baliabideen erabilpena eta elkarbitzitan eta inguruan moldatzeko

zenbait trebezia erakutsi nahi ditugu».

Nairolau autobusa aukieze, oheez, komunaz, sukaldeaz eta liburutegiak hornitua dago, eta irailan hasiko da abentura berri honetako lehen pausoak ematen.

«Birjinen tradizioak eta egiak kontatuko ditut»

MIKEL TELLERIA | Idazlea

Kultura «Tolosa bizi dugun tolosarrok' liburua aurkeztuko du, eta herriko Ama Birjinen inguruan hitz egingo du, gaur, udaletxean.

I. TERRADILLOS

Tolosa egin dugun tolosarrok liburua aurkeztuko du gaur Mikel Telleriak udaletxeko batzar aretoan. Horrekin batera, Tolosako Andre Marien inguruan ere hitz egingo du. Herritar ororentzat irekia da ekitaldia, eta 20:15ean hasiko da.



E. EZEIZA

Orain gutxi aurkeztu zenuen lana liburua formatuan izango dugu orain.

Bai, hala da. *Tolosa egin dugun tolosarrok* lana liburuan argitaratzeko aukera izan dut. Bertan herri honetan gauza batengatik edo besteengatik nolabaiteko protagonismoa izan dutenak azaltzen dira. Gaurko hitzaldira etortzen direnek jaso ahaliko dute doan.

Horretaz gain, Ama Birjinez ere hitz egingo duzu. Zergatik?

Tolosan askok ezagutzen ez badiuzte ere Andre Maria asko daude, eta esanahi eta funtzio berezi eta garrantzitsuak izan dituzte herriaren historian. Horregatik iruditu zitzaidan interesgarria izan zitekeela jendeari hori guztia azaltzea. **Nolatan hasi zinen Tolosako Ama Birjinak aztertzen?**

Herriari buruzko entziklopedia bat egiten ari naiz, eta puntu horretara iritsi nintzenezan, hau da, *birji-*

na hitzara iristean, sakonago aztertzen hasi nintzen. Orduan konturatu nintzen gauza asko eta interesgarriak zeudela.

Gainera, bost Ama Birjin ikusteko aukera izango da gaurko ekitaldian, ezta?

Bai, eta hori ez dut uste gehiagotan errepikatuko denik. Birjina txikia edo tornokoa, Iurrekoa, Izaskun- goa, Sokorropekoa eta bideko birjina dira. Hauen inguruko kondairak, tradizioak eta egiak kontatuko ditut.

Tolosari buruzko entziklopedia noiz ikusiko dugu bukatuta?

Ez dakit, agian 2-3 urte barru. Tolosari buruz idaztea asko gustatzen zait, eta horrela hasi nintzen duela 4-5 urte. Izan ere, gauza asko zegoela ikusten nuen, eta hori guztia biltzeko beharra sentitu nuen. Musikari buruzko gehigarri bat ere izango du, asko baitugu Tolosan musikaz.

Gidariak behar dira dokumentazioa eta baliak banatzeko. Postu finkoak erakunde publikoetan. Lanaldi jarraia.

610-71 97 82

Lan publikoetarako zaintzaileak, igeltseroak, arotzak, argiketariak, eta mantenuerako langileak behar dira. Lanpostu finkoak.

600-97 74 95

Telefonistak/harreragileak behar dira eraikin publikoetarako. Postu finkoak. Lanaldi jarraia.

607 -25 42 40



Realeko jokalariai agurtu dituzte

TOLOSA Realeko jokalariai agurtzera herritar eta ikasle ugari irten ziren kalera atzokoan. Lehen Mailarako igoera lortu berri duen futbol taldeko jokalariaiek, herria autobusez iragan zuten, gelditzeko asti handiegirik har-tu gabe. Txikienek txuri urdinez pintatu zituzten banderatoak. Hauek astinduz agurtu zituzten jokalariai. JON MUJICA



Grafikagintzak kalean jarraitzen du

TOLOSA LAB, ELA eta CCOO sindikatuek deituta grafikagintzako langileak kalera irten ziren atzokoan. Manifestazioan, «hitzarmen duin» baten aldeko oihuak zabaldu zituzten kaleetan barrena. Adegiri-le-

poratu zioten grebaren ardura langileek, negoziazioan «bere jarrera» salatzearekin batera. Grafikagintzako langileek bezala, eraikuntzakoek ere greba eguna zuten atzokoan. ASIERIMAZ

Kirol Medikuntza eta Teknikazio Zentroak atekak zabaldu ditu

Tolosa Eskualdeko eta Gipuzkoako kirolari eta pertsonai esanguratsu ugari elkartu ziren herenegun Usabalen.

balik dagoela azaldu zuen Andoni Imaz gerenteak. Bertan lan egiten duten langileak ere gorai patu zituen futbol jokalariai ohiak.

Bost programa

Zentroan bost programa aurki ditzake erabiltzaileak: Osasuna; Osasuna+ Entrenamenduak; Emakumea; Sasoian Jartzeko; eta Zikloturista. Bakoitzak 100 eurotik gorako kostua dauka eta bazkideek beherapenak edukiko dituzte. Informazio gehiago nahi duenak Usabal Kiroldegira joan



Teknikazio Zentroko gerentea, Andoni Imaz, Konpromiso Etikoa sinatzen. A. IMAZ

beharko du, edota 943 67 24 59 telefono zenbakira deitu.

Kode Etikoa

Afari merienda eta Zentroa ikusi aurretik, herenegun Usabalen bil-

du zirenek Konpromiso Etikoa sinatzeko aukera izan zuten. Oreki Fundazioak sustatuta, Kode Etikoa etxera eramateko aukera ere eduki zuten gonbidatuek. Kirolarientzat, medikuntzatzat eta zain-

tzailentzatzat, gurasoentzatzat eta entrenatzaileentzatzat prestatu du Kode Etikoa Oreki Fundazioak. Azkenik, lehen aipatu bezala, Kirol Medikuntza eta Teknikazio Zentroa bisitatu zituzten.

ERREDAKZIOA

Tolosako Usabal kiroldegian jende ugari elkartu zen herenegun, «garrantzi handiko» ekitaldi bat ospatzeko asmoz. Kirol eta politika munduko pertsonaiek Asuncion Klinikako Kirol Medikuntza eta Txirringintzako Teknikazio Zentroa inauguratu zuten, ofizialki berederen.

Ondoren, Oreki Fundazioaren ekimenez, Konpromiso Etikoa sinatu zuten.

Herritarrentzat ere zabalik

Teknikazio Zentroa martxan «duela hamaika hilabete» jarri baldin bazuten ere, herenegun, Asuncion Klinikak modu iraunkor batean proiektuarekin bat egin duela ospatu zuten.

Kirol Medikuntza Zentroa kirolarientzatzat, Kiroldegiko erabiltzaileentzatzat eta herritarrentzatzat ere za-

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Eskual Herriko produktak, etolizagengandik zure eskuz

Egin esan, ez darama onura handia. Internet bidez erosteko egitea, baina BERRA!p. eskaintzen duen webgunean erosteko proba egin nahi, eta gurekin ezarri bai produktua eta bai zerbitzua.

27,00 €
Lortu. 100000
Eskual Herria, Baxena 4. Herria

25,00 €
Lortu. 100000
Herriaren, Herriaren Herria

Beste produktuek ere onura handia dauka! Egiaztatu duzula Eskual Herriko Plazan.

www.euskalherriko.plaza.com
plaza@euskalherriko.plaza.com



Euskal Kopan bigarren geratu dira

IBARRA ■ Ibarra jubenilen areto futboleko taldea bigarren geratu da Euskal Kopan. Bilbo Exbasa izan zuen aurkari finalean, eta partida guztian zehar gauzak oso estu joan baziren ere, azkenean 4-5ekoare-

kin, bizkaitarrentzat izan zen garaipena. Eskoriatzan jokatuako partida borrokatua izan zen, eta gusura geratu ziren bertaratutakoak, futbolariak eskainitako ikuskizunarekin. HITZA

Lehen Korto Lehiaketa antolatu dute Atekabeltz-en

Leitza ■ Egileek aukeratu ahal izango dute gaia eta lanak aurkezteko epea uztailaren 16an amaituko da.

ERREDAKZIOA

Atekabeltz gaztetxeak lehendabiziko aldiz, Korto Lehiaketa antolatu du. Honenbestez, inguruko gazteek sormena lantzeko eta garatzeko beste aukera bat izango dute. Baita beraien kezak, ideiak, gogoak... bideo batean biltzeko ere.

Parte-hartzaileek, nahi duten gaia aukeratu, film labur bat osatu beharko dute. Hauen iraupena gehienez, 15 minututakoa izango da.

Taldeka nahiz banaka eman daiteke izena, baina hori bai, talde bakoitzak gehienez hiru lan desberdin aurkeztu ahal izango ditu. Parte-hartzea errazteko, bideoak bitmodutara grabatuak izan ahalko



Bideo kamerarekin nahiz mugikorrarekin grabatu daitezke bideoak. A. IMAZ



dira, alde batetik, kameraz, eta bestetik, mugikorrekin. Hauek, DVD batean utzi beharko dira, eta kartazal batean sartuta. Bertan, taldeko partaideen izenak zehaztu. Hau da, zuzendariak, aktoreak... Baita film laburraren izenburua ere.

Lanak Atekabeltz gaztetxe atarian dagoen buzoian utzi beharko dituzte parte-hartzaileek. Horretarako epea uztailaren 16an amaituko da. Lan guztiak bildu ostean, proiektzioa eta sari banaketa uztailaren 23an egingo da, Gaztetxean bertan. Aurkezpena 22:30ean hasiko da.

Abian da beste behin ere, Emeterio Arrese Literatur Lehiaketa

Ibarra ■ Euskara ikasten dutenentzako eta Udako Euskal Unibertsitateko ere atera ditu laguntzak, euskara departamentuak.

ERREDAKZIOA

Gaur amaitzen da Emeterio Arrese Literatur Lehiaketa parte-hartze epea. Urtero bezala, aurten ere martxan jarri dute Emeterio Arrese Literatur Lehiaketa. Lehiaketa hau Ibarra ikasten diren edo Ibarra ikasten duten 16 urtera arteko haur eta gazte txoei dago zuzendua. Lehiaketak hiru maila ditu, lehen maila: lehen hezkuntzako 1., 2. eta 3. mailako umeak; bigarren maila: lehen hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailako umeak eta 3. maila: derigorrezko bigarren hezkuntzako gazteak. Lanak hiru modalitatekoak izan daitezke: poesia, prosa eta talde lanak, azken hauek DBHko ikasleentzat direlarik.

Lanak gaur arte aurkeztu ahal izango dira, Ibarra Udako Euskara Zerbitzuan edo Kultura Etxean. Oinarriak berriz, Udako Euskara Zerbitzuan egongo dira eskuragarri.

Udako euskarazko ikastaroetarako laguntza

Horretaz gai, unibertsitate mailako udako ikastaroetarako diru-laguntzak ere emango ditu Ibarra Udalak, hau da, Udako Euskal Unibertsitateak nahiz Euskal Herriko Unibertsitateak udan antolatzen dituzten euskarazko ikastaroak egiteagatik. Diru-laguntza hauek jasotzeko euskara ikasleek bete behar dituzten baldintza ber-

berak bete behar dira eta irizpide berei jarraiki emango dira, hau da, Ibarra erroldan izen emanik egon behar da, eskaera orria bete eta eskaerarekin batera ordainketa-agiria eta ikastaroa egin dela ziurtatzen duen agiria ekarri behar da. Kasu honetan ere eskaerak egiteko epea uztailaren 29an amaituko da.

Euskara ikasleei diru-laguntzak

Ibarra Udalak euskara ikasten ari diren ibartarrei diru-laguntzak emateko epea ireki du.

2009-2010 ikasturtean euskara ikasten aritu diren ibartarrei diru-laguntza emango die Ibarra Udalak. Horretarako eskaera-orria ondo bete, nortasun agiriaren fotokopia eta euskaltegiak emandako ziurtagiriarekin batera udal-letzeko Euskara Zerbitzuan entregatu beharko dute uztailaren 30a baino lehen.

Diru-laguntza jasotzeko nahitaezkoa da Ibarra erroldan izen emanda egotea gutxienez sei hilabeteetan, ikastaroa amaitu egin behar da eta gutxienez %85eko asistentzia bermatu. Horretaz gain, irakasle edo euskaltegiak txostena egin behar du ikaslearen errendimenduari buruz. Diru-laguntza zenbatekoari dagokionez, ikasturte edo ikastaro bakoitzeko matrikularen %40 emango da. Barnetegia eginez gero, kostu osorekin (matrikula gehi pentsioa, ez, ordea materiala) erdiaren %40.

Eskabideak eskuragarri daude Udal-letzeko Euskara Zerbitzuan eta www.ibarrakoudala.net webguneko euskarazko diru-laguntzen atalean.

Bihar, finalerdian Baztan izango du aurkari Leitza

ERREDAKZIOA

Jardunaldi guztiak irabazi ostean, Leitza pilotariak Nafarroako Herriarte Txapelketako finalerdietan dira. Asteburu honetan, joaneko partida jokatu dute Amazabal pilotalekuan. Bihar 18:30ean hasiko dira partidak, eta oraingoan Baztan izango dute aurkari.

Ohi bezala, alebina partidarekin hasiko da jardunaldia. Leitza Ander Alduntzin eta Jon Lezeak Espelosin eta Antso izango dituzte aurkari. Infantiletan, Anartz Olano eta Mikel Sagastibeltza, Albiusu eta Untxaloren kontra ariko dira. Jubeniletan, Xabier Jaunarena-Mikel Hermandorena, eta Jaurregi-Arizmendi bikoteen arteko

ikusteko aukera izango da. Azkenik, seniorretan, Jon Jaunarena eta Mikel Iriarte aterako dira kantxara, X. Arrasto eta U. Arrastoari kontra egiteko.

Igandean, partida gehiago

Etzi, Herrerako Txapelketako finala jokatu da. 10:00etan hasiko da partida, eta kadeteetan, Aurre-rako Anartz Olano eta Tolosa lehiatuko dira.

Lizarrako Txapelketako finala ere etzi goizean jokatu da. 09:30ean hasiko da norgehiagoka, eta hemen ere, leitzar bikote bat izango da protagonista. Txapelaren bila joango baitira Xabi Zubiria eta Ander Garziarena infantilak.



Izeta II.aren aurka lehiatuko den Aiztondo-Oarso gizon proba osatzen duten kideak. HITZA

Aiztondo-Oarso gizon proba taldea, Izeta II.aren aurka

Kirolak » Alde bakoitzak 30 minutuko saioa egin beharko du. Apustua bihar jokatuko dute 22:00etan Aiako plazan.

ENERITZ MAIZ

Bihar larunbata, 22:00etatik aurrera apustu berezi bat ikusteko aukera izango da Aiako Plazan. Izeta II.a, Aiztondo-Oarso gizon proba taldearen aurka lehiatuko da.

Lehenik Aiztondo-Oarso gizon proba taldeak 30 minutuko saio bat egin beharko du 900 kiloko harriarekin. Eta ondoren, Izeta II.aren txanda izango da beste 30 minutuz. Honek 125 kiloko harri errektangeluarra jaso beharko du.

Gizon probako taldea, 8 gizon ezosatu izango da eta horien artean aiztondo bailarakoak daude: Pello Argaya, Tximel, eta Mikel Ugarte-mendia zizurkildarrak eta Gari-koitx Etxeberria amasarra izango dira. Gainontzeko 5 taldekideak, Oiartzun, Errezil eta Usurbilgoak dira.

Gizon proba taldeak bota eta Izeta II.ak onartu

Gizon proba taldekoek, Izeta II.ak apustu bat egiteko asmoa edo nahia zuenaren zurrumurrua zuen. Hori dela eta, eronka botatzea pentsatu zuten Izetari eta honetarako onartu egin zuten.

Alde bakoitzak 30 minutu izango ditu bere lana egiteko. Eta alde bakoitzak, 3.000 euro jarri ditu mahai gainean.

Plazara aurrena, 900 kiloko harriari tiraka ahalik eta plaza gehien egiteko helburuarekin Aiztondo-Oarsokoak aterako dira. Hauek beraien lana bukatzean, Izetak 125 kiloko harri errektangeluarri jasoaldiak ematen hasi beharko du.

Apustuaren gakoak bakoitzak egin beharreko plaza edota jasoaldietan egongo da. Gizon probako taldeak egin dituen plazaren arabera egin beharko du lana Izeta II.ak. Harri jasotzaileak apustua irabazi nahi badu, Aiztondo-Oarso taldeak emandako plazak, jasoaldiekin bikoizteaz gain, jasoaldi bat gehiago egin beharko du. Berdinketaren kasuan, gizon probakoek irabaziko lukete apustua.

Apustuak eta herri kirolak maite dituztenek, beste aukera polit bat izango dute bihar Aiako plazan.



San Isidro egunez, talde polita elkartu zen. Hamaiketako ere egin zuten. HITZA

Auzolan Taldeak aurrera begira ere ekimenak egingo ditu

Anoeta » Auzolan Taldea herritarrekin indartu eta mantendu nahi du Udalak. Hurrengo deialdian parte hartzea animatu nahi ditu.

E. MAIZ

Lehen ekimena maiatzaren 15ean egin zuten. Mendi ibilaldi baten bidez, auzolanean aurrera eramandako lanak erakutsi eta aurrerantzean egingo direnei buruz hitz egin zuten. Hilaren 12an, Ikastola inguruan Lasarbe erreka garbitze-

ko Auzolan ekimena antolatu zuten. Batzuk erreka inguruko sasiak moztu zituzten eta besteek, erreka zaborra jaso zuten. Bildutako zaborra sailkatu eta garbigunera eramane zuten. Aurrera begira, hurrengo Auzolan ekimenen bitartez bi bide konpontzeko asmoa dute. Osinzuolotik Isastira doana eta Arrutarte-Tapia baserrietatik Akulabi errekaraino doana.

Udalari Auzolan Taldea herritarrekin batera mantendu eta indartzea gustatuko litzaioke. Horregatik, hurrengo Auzolan ekimenetan parte hartzea animatu nahi ditu.

Laburrak

Alkartasuna Elkartetik Errioxako Brionesera

ANOETA » Uztailaren 2an, Alkartasuna Elkartetik Errioxako Brionesera joateko bidaia antolatu dute berastegiarrekin batera. Bakoitzak 10 euro ordaindu beharko ditu eta gosaria eta bazkaria barruan daude. Izena emateko azken eguna hilaren 29a izango da.

Udako Futbol Campusean izena emateko aukera

KIROLA » Zizurkilgo Danena Kirol Elkartek udako futbol campusa antolatu du. 1997tik 2004ra bitartean jaiotako neska mutilen zuzendua dago. Uztaila eta abuztuan euskaraz izango da eta lau astetan banatuko da, 09:30etik 13:30etara. Izena emateko azken eguna hilaren 27a izango da Zizurkilgo Udal Bulegoan edo Asteasuko kiroldegian. Informazio gehiago: 943-696388 telefonoan.

Eskuratu liburua
ekainaren 30a
bitartean
12 euroren
truke.

BERRIAren
harpidedunentzat
eskaintza
berezia:
6€

Egin eskaera eta etxean jasoko duzu
www.berria.info
harpidetza@berria.info
943-30 43 45

aukera ezazu,
bizi euskaraz
berria

#Gipuzkoa

Krisiaren aurkako
2010 Plana
100 milioi euro

Enplegua sortzea

Gipuzkoan badugu Plana:
Lan-munduan sartzen laguntzea
zailtasun bereziak dituzten taldeei
eta enpresetako gizarte-balioak
sustatzeko.

GIPUZKOA
zurekin, aurrera»

184 korrikalarik igoko dute Txindoki Bertikala



Azpeitian pasa den urtean egin zen lehen aldiz Xoxotera igoera bertikala, hau ere puntuagarria. ENEKOITZ ESNAOLA

Mendia » Txindoki Bertikalean punta puntako lasterkariak hartuko dute parte; puntuagarria izango da proba.

AGURTZANE BELAUNZARAN

Aste honetako eurien ondoren, Txindokiko bidea lokaztua izango dute Txindoki Bertikaleko lasterkariak. Hala ere, lokatza lokatz, Txindoki gaina ahalik eta lasterren igotzen saiatuko dira 184 lasterkariak.

Larraitzeko langatik aterako dira korrikalariak. 415 metroko altueran hasi eta Txindoki gainera 1346 metrotara ahalik eta azkarren igo beharko dute. 3878 metrotako luzera du ibilbidea eta 931 metro-tako desnibela. 10:00etan aterako da lehen parte hartzailea, 30 segundoro aterako dira gainontzekoak. Eguerdiko 14:00etarako azken lasterkariak, Txindoki igotzea

espero dute antolatzaileek. Lehenengo aldia denez, denbora errekorrik ez dagoela aipatu digu Txindoki asko ezagutzen duen Patxi Kaminos abaltzisketarrak bainarabazleak 35 minutu inguru beharko dituela aipatu du.

Korrikalari ezagunak

184 lasterkari izango dira guztira: 11 emakume eta 173 gizon. Hauen artean, Bertikala lasterketetan punta puntan dabiltzanak parte hartuko dute: Didier Zago frantziarra, Fernando Etxegarai berarra, Walter Becerra sestoarra, Hassan Aichaou marokoarra eta Luis Mari Garin alegiara dira faboritoak. Nesken mailan berri, Nerea Amilibia izango da faborito nagusia.

Froga puntuagarria izango da Txindokikoa. Aipatutako korrikalariak, Euskal Herriko Kopan aurreneko postuetan dabilta. Txindoki gaina ahalik eta azkarren zarpitzeko lehia gogorra izango da

» DATUAK

- **Zer.** I. Txindoki Bertikala mendi lasterketa puntuagarria.
- **Nondik nora.** Larraitzeko langatik Txindokira.
- **Noiz.** Larunbata, ekainak 19.
- **Ordua.** 10:00etatik-14:00tara.
- **Desnibela.** 931 metro
- **Luzera.** 3878 metroko distantzia

beraz. Euskal Herriko Bertikalen Kopan, Txindokikoaz gain, Xoxote, Anboto eta Uharte-Arakil-Beraingo igoerek osatzen dute. Lehenengo lasterketa, pasa den maiatzaren 8an burutu zen. Anbotoko frogaren ondoren Txindokikoa izango da. Gero, uztailearen 4ean Azpeitiko eta etorriko da, eta Euskal Herriko azkena, irailaren 20ean izango da Uharte Arakilen. Emakume eta gizonezkoen kategorietan lehenengo hirurek dirua jasoko dute sari gisa. Baita, beterranoen mailan lehenengo postua lortzen duen gizonak eta emakumeak ere.

Pilota partida ugari izango dira eskualdean aste bukaeran

Pilota » Gaur jokatuko dira VII. Hitza Txapelketako partidak. Bihar Talentu Txapelketako finala Alegian jokatu da.

ERREDAKZIOA

Final laurdenetan sartu dira VII. Hitza Txapelketako jokalariek. Aste honetan, Beotibar pilotalekuan jokatu da Nagusien partidetak bat. Quina-Zubiri bikoteak, Nabarte Mujikari 22-14 irabazi zion. Gainontzeko partidak gaur jokatu dira 19:00etatik aurrera Alegia, Albiztur, Bidegoian eta Tolosan.

Talentu Txapelketako buruz buruko iritsi da finalera. Larunbatean, Alegian jokatu dira 16:00etatik aurrera infantil eta ale-

binen arteko partidak. Alebinetan, herritarra izango dute alegiarrek kantxan. Aratz Irazustabarrenak Moron arrasatearraren aurka neurtuko ditu indarrak. Pasa den astean finalerako txartela lortzeko partida gogorra egin behar izan zuen alegiarrak 16-15 irabazi zion Zezeaga bergararrari. Moronek errazago lortu zuen garaipena, Azpiazu asteasuarraren aurka.

Infantiletan, Aurreara Saiazeko Aburuzak, Antiguoko Aranguren aurka jokatu da.

Udaberriko Txapelketako buruzko buruko final erdiak ere aste-bukaeran jokatu dira. Gaur, Nazabal zaldibiarrek Chorenosen aurka jokatu du Alegian, Hitza Txapelketako partidak amaitzean. Larunbatean, Ikaztegiatan 16:00tan alebinek bi partidatan neurtuko dituzte indarrak.

Laburrak

Zumadi eskolakoen kurtsu amaierako festa gaur

AMEZKETA » Ikasturte amaierako festetan murgilduta daude eskualdeko ikastetxeak. Kurtsuaren azken egunak aukeratu dituzte Zumadi eskolakoek festa egiteko. Gaur goizean Eskolako jolas lekuan elkartuko dira 10:00etan eta jolasak egingo dituzte. Ondoren, San Martin auzora igoko dira eta baselizaren ondoren bazkalduko dute, eguraldiak laguntzen badu behintzat. Bazkal ostean Eskolara itzuliko dira. Apain apain jantzi eta 15:00etan guraso eta herritarren aurrean irakasleekin prestatu duten ikuskizun polita eskainiko dute.

Loatzoko eta Donostiako musikarien emanaldia

IRURA » Donostiako Francisco Escudero kontserbatorioa eta Loatzoko musikako eskolakoek emanaldia eskainiko dute 19:30etan Irurako musika eskolan.

Magia ikuskizuna herriko eskolan gaur, 17:00etan

BERASTEGI » Jon Magic mago gazteak magia ikuskizuna eskainiko du gaur 17:00etan Muñagorri eskolan. Berastegi haur eta gurasoak, aho zabalik utziko ditu; karta jokoekin, makiltxoaren trikimailuarekin eta desagerraraziko duen usoarekin.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHOZTETXEA
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40
ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altxo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**



Bingo ugari entzun dira lurreamendin

TOLOSA ■ Adinekoen astea ari dira ospatzen egun hauetan lurreamendi egoitzan. Ekitaldien artean, azot goizean, bingoan jolastu ziren egoiliarak. Boltsok, pitxiak gordetzeko kaxak... irabazi zituzten bingoa

kantatu zutenek. Jarduerekin jarraituz, 10:30ean Euskaristia ospatuko dute eta ondoren, galdera lehiaketa egingo dute. Bingo zaleentzat, gaur ere izango da saioa, baina arratsaldean, 16:00ak inguruan. i.r.

A Agurak



Urrezko ezteiak!

Jose Manuel Izagirre Iturrioz eta Pilar Urkizar Olariaga.
Berrobin bizi dira. 1960ko ekainaren 18an ezkondu ziren.
Ondo pasa eta zorionak familiaren partetik.



Zorionak!

Axier eta June Larrarte (Zizurkil). Gaur 7 urte.
Zorionak aita, ama, Manex eta Amaiurren partetik.

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

agurak

Mesedez,
ekarri
argazkia
bi egun
lehenago.

A Agenda

Antzerkia

■ **Albiztur.** *Chiclowina* pailazo emanaldia udaletxeko areto nagusian, 20:00etan. Aitziber Bilbao da antzezlea, eta Ana Luisa Cardoso eta Itxaso Azkarate zuzendariak.
■ **Tolosa.** *Tres sombreros de copa* Kultur Etxeko antzerki tailerraren ikuskizuna, Leidor aretoan 20:30ean.

Bilerak

■ **Ibarra.** Ibarra Kirol Elkarteak bazkideen aparteko batzarra 21:00etan. Dei berezia egiten die bazkideei, eztabaidatuko diren gaien garrantziagatik.
■ **Zizurkil.** Oporretan Euskaraz udaleku irekien bilera Atxulondo Kultur Etxean 18:00etan. 1998-2006 urte bitartean jaiotako haurren gurasoei zuzendua da. Udalekuak, hilaren 28an hasiko dira eta uztailearen 23ra bitartean izango dira.

Deialdiak

■ **Tolosa.** Opor aurreko azken Tolosa Kantari Kantu Jira izango da 25ean eta ondoren afaria egingo dute. Izen-ematea, 22 arte, Sonia (615 783780) edota Nekaneri (619 941381) deituta.
■ **Zizurkil.** Ziotza elkarteak Zimiterioko VIII. Binakako Eskupilota Txapelketa antolatuta du. Ekainaren 20a da izena emateko azken eguna, 616 96 1153 edo 649 70 34 72 zenbakietara deituta.

Entseguak

■ **Anoeta.** Ekainaren 23an suaren inguruan San Joan zortziko dantza egin nahi dutenentzat, entsegua 19:00etan kiroldegian.

Hitzaldiak

■ **Hernialde.** 21:30ean *Shisha Pangma Bide Britaniarra* hitzaldia Koke Lasaren eskutik, asteburu kulturaren barruan.

■ **Tolosa.** Mikel Telleriaren *Tolosa egin dugun tolosarrok* liburuaren aurkezpena eta *Tolosako andre mariak* hitzaldia, udal batzar aretoan 19:30ean.

Jaiak eta ospakizunak

■ **Ibarra.** Gazte Festak: 19:00etan txupinazoa eta eskupilota herrikoien finala; 21:00etan barrikoitea Gaztetxean herriko trikitilariekin, eta 23:00etan Lain eta Vendetta musika taldeen emanaldia plazan.
■ **Tolosa.** Adinekoen Astea lurreamendi egoitzan: 10:30ean meza; 11:00etan galdera lehiaketa egingo dute eta ondoren sari banaketa ekitaldia; 16:00etan bingo berezia izango dute kafetegian.
■ **Tolosa.** Errota Haur Liburutegiko udako festa 18:00etan.

Lehiaketak

■ **Tolosa.** Tolosa Beantatuz Lehenengo Graffiti eta Mural Lehiaketaren hasiera, 16:00etan.

Erakusketak

■ **Tolosa.** Kultur tailerretako ikasleen erakusketa Aranburun.
■ **Tolosa.** Gureak taldeko Goienezte fundazioko eguneko zentroko kideek urtean zehar egin dituzten lanekin *Gustatu al zaizu?* erakusketa osatu dute GKO galerian.
■ **Tolosa.** *Aluminum* erakusketa Fronton jatetxean, aluminioko eskulturak eta koadroak.
■ **Tolosa.** *Panpina bizidunak* erakusketa ikusgai Topic-en.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

TOLOSAKO LASKORAIN IKASTOLAK LANGILE HAU BEHAR DU



Magisteritzan diplomaduna Atzerriko Hizkuntzan
Haur Hezkuntzako teknikaria
Magisteritzan diplomaduna Haur Hezkuntzan
ordezkapenak egiteko

Derrigorrezkoa: EGA titulua
Curriculumak e-mailez bidali behar dira
tolosa@ikastola.net helbidera.
Jasoko diren azken eguna, ekainaren 25a.